

Aiako Harriko LIFE proiektua (2005-2009): bidea eginez

Ibai Portu (IKT S.A.). LIFE Proiektuaren koordinatzailea

Ingurune paregabe baten altxorak

Aiako Harriko Parke Natural eta Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL) 70 km² inguruko hedadura dauka. Ingurune honek ez du bakarrik altxor geologiko paregabe bat gordetzen, Europa mailan galtzorian dauden edota urriak diren zenbait baso-mota eta basa-espezieren bizileku ere bada; lehenengoen artean, harizti-amezti, pagadi eta erreka bazterreko haltzadiak.

Bigarrenengoen artean, erreketako ur-sator piri-niarra, mundu mailan mehatxaturiko *Soldanella villosa* landaretxoa eta ur-jauzietako *Trichomanes speciosum* iratze ederra.

Ekimen irmoa, proiektu sendoa

Pasa den urteko Oarso aldizkarian aurkeztu genuen Aiako Harriko LIFE proiektua. Bertan genioenez, LIFE programa Europar Batasunak ingurumen-politikak bultzatzeko daukan finantzaketa-tresna bat da, eta urtero Europako ingurumen proiekturik onenak aukeratu eta diruz laguntzen ditu.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiaren ekimenez, 2005eko LIFE proiektuen deialdian, Aiako Harriko proiektu sendo bat aurkeztu zion Europar Batasunari. Ekimen honi Erreterria, Oiartzun, Irun eta Hernaniko Udalak bateratu zitzaizkion, Basoa Fundazioak, Naturgintza Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzako Ur eta Biodibertsitate Zuzendaritzak egin zuten bide beretik.

Hala, denen artean, Aiako Harriko altxor naturalak, kudeaketa berritzaile baten bitartez, berreskuratzea eta kontserbatuko zituen proiektua eratua gelditu zen. 4 urteko proiektu bat izango zen (2005-2009) eta aipaturiko erakunde guztien artean 1,13 milioi euro jarriko zituzten. Europar Batasunak beste hainbeste jarri eta 2,26 milioi aurrekontuko proiektua eratua gelditu zen denera: *Aiako Harriko LIFE proiektua*. Ekimen honen balioa berebizikoa izan zen, Europar Batzordera beste 182 proiekturakin batera aurkeztu eta onartu ziren 54 proiektuen artean 6. lekuan gelditu bait zen.



Proiektuaren ibilbidea: zer egin den

Proiektuaren iraupenaren erdia iragan ondoren, hainbat ekintza aurrera eramanez Aiako Harriko baso eta erreketan. Basabizitzari buruzko ikerketa eta jarduera ugari gauzatu, kontserbaziora bideratzeko lursailak erosi eta mendiko lan ugari egin dira. Eta, ekimen hauek guztiak ezagutaraztea da, azkenik, proiektu honen helburu nagusietako bat.

Egindako ekintzak asko izan dira eta haue-tariko batzuk, Erreterriako udalerriari dagokionez (Parke Naturalaren laurdena), aipa litezke hurrengo esaldiotan:

1. Igantzi mendian, interes komunitarioko habitat naturalak berreskuratzen ari gara: insignis pinuz estalitako 36 hektarea pagadi eta harizti bilakatze-zeko prozesua abian jarri da.
2. Haritz amerikarrez estalitako Igantziko sortaldeko hegian, 22 ha-tan, aireko kable bidezko egur ustiaketa egin da, berez-berez zetorren bertako landaredia ez kaltetu eta etorkizunera begira berau indartu dadin, baso-pista berririk eraikitze-zeko beharrik gabe.
3. Argiñotzeko kaxkoaren sartaldekoko hegian ere pago, ametz, urki, gurbitz eta otsalizarrak landatu dira, aurretikako pinudia bota eta bertako egurra atera ondoren.



BISOI EUROPARRA: LIFE Proiektu honek bisoi europarrarentzako habitat egokiak sortzen lagunduko du.

4. Pinu eta haritz amerikarren ustiaketetan erreketatik albo banatarako 15 metro ukitu gabe utzi dira, erreketako ekosistemen kontserbazio egoera ona mantendu edo hobetu nahian.
5. Añarbe basoan pagadiaren konplexutasun estrukturala handitu egin da 80 ha-ko eremu batean, bertako biodibertsitatea areagotzeko asmoz. 200 zuhaitz lurrean hilik utzi dira eta beste 200 gerrikotu dira, zutik hilik gera daitezen.
6. Añarbe urtegiara isurtzen duten 4 ibai nagusietan (Añarbe, Latse, Atseginsoro, Olin) zuhaitz enborrak ipini dira, presa naturalen antzera, urtegi urtetik urtera ematen ari den orbel pilaketaren prozesua geldiarazi dezaten, bide batez erreketan bizidun urtarrek (amuarrainek, anfibioek,...) garatu ahal izateko haien habitaten baldintzak hobetuz.
7. Lorturiko emaitzak agertu eta sortu diren dokumentuak jendeak eskuragarri izan ditzan, Life Proiektuaren Web horria martxan jarri da: www.lifeaiakoharria.net.
8. Proiektuaren zabalkuntza eta sentsibilizatorako izaera dela medio, hainbat aldizkaritan artikuluak argitaratu dira (Elhuyar, Sustrai, Basogintza,...), hitzaldiak eman eta baita prentsa oharrak kaleratu ere.

LIFE Proiektua ez da erakunde publikoen ekimen indartsu bat bakarrik; pertsona askoren lanaren isla da ere bai, egunetik egunera natura kudeatzen ikasi eta ulertzeko modu berritzaile bat; herritarrak gozatu eta mendian pasiatzen duenean nota jarri ahal izango dion ekimen bat, alegia. ■